

Jesusa Sarriegi Aiestaran

*Beasain, Gipuzkoa
(1919-2008)*

Aurkibidea

Biografia



Zelarre baserrian jaioa, Erauskinzahar baserrian bizi izan zen. Beasaingo mojen eskolan ibili zen 10 urte bete zituen arte. Gerra aurreko zein gerra osteko urteak bete-beteaz ezagutu zituen. Azalpen interesgarriak eman zizkigun etnografia arloko zenbait gairen inguruan: gari-ebakitzeak, erromeriak, abereak, sagardogintza...

Zintak

BEA-016

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-09-07
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

BEA-017

- **Proiektua:** Beasaingo euskara eta etnografia
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2005-09-07
- **Iraupena:** 63 min
- **Euskarria:** MiniDV

BEA-057

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arratibel, Imanol
- **Data:** 1995-01-01
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

BEA-058

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arratibel, Imanol
- **Data:** 1997-01-01
- **Iraupena:** 28 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. Arteta baserriko erromeria; dantza eginez gero kongregaziotik kanpora

- **Erref:** BEA-016/001
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:02:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak

Laburpena:

<p>Usurbeko erromeria. Auzoko jaiak. Arteta baserrian egiten zen erromeria. Dantza-soltea egin behar izaten zen; lotua debekatuta zegoen. Hijas de María kongregaziokoak zaintzen ibiltzen ziren. Kongregaziora zenbat urterekin sartzen ziren.</p>

Transkripzioa

- Alaba: ... Guk ez gendun ezautu. Beste basarri baten, Arteta...
- Hemen goien basarri baten, ba, gazte-jende asko zeon. Eta hemen Gariñeneko hortan bizi zan Joan Joxe eo... soiñue jotzen zoon. Ta bee bizkarren soiñue zola jutun zan baserri hortaa. Ta gu gazte asko. Ta horti bakarrik ez, hemen beheti´re etortzen zien ta.
- Alaba: Kaletik jutun emen zien...
- Bai, kaleti. Ta geo, zea, esto... baltseon ez zeon eitteik, libre bakarrik. Galazi eitten zoen. Ta etortzen zien beheti Marian alabak ziela o... Gu´re, bakizu, arten gazteek eta...
- Alaba: "Hijas de María".
- "Hijas de María". Ta kongregazioti botako giñutzela hor baltseon eitten baldin bazan. Eta etortzen zien hiru o lau neska beheti, ba, ikustea baltseon eitten zon iñok o... Baiño jenealen sueltokoa jotzen zon. Oso soiñujole ona zan.
- Orduan, lau neska etortzen ziren zaintzera?
- Bai, kaleti, zea, "Hijas de María", baiño buru zerenak, haundiik, gradu gehio zeukenak. Ta ez gendun... gu ez giñuzten behintzet bota kongregaziotio; igualtsu ibili giñen. Hamalaun bat urte eo hola neuzkela nik. Ia zenbat urte dien.
- Kongregazioan ze sartzen zen...?
- Kongregazioa?
- ... komunioa egin eta gero, ez?
- Bai, bai. Hamabi... hamar urtekin guk ein [gendun] jaunartzea ta ya kongregazion sartuta genduken. "Hijas de María"-n medallea izaten gendun, gaiñea, komunioa hartzera juteko ta. Kategori haundie izaten zan, e? Orduan, garai hartan, elizan? Bueno! Ta, esaten dizut jendea... bueno! Izaten zan hor asko! Ta, hola, ardi garaien ta, ordun, mondejuk-eta itten zittuen ta afaltzen-ta jendea izaten zan. Izeba-osabak giñutzen guk hoik, hor basarri hortakok. Osaba hil zan ta izeba, ta nee edadekoa zeuken semea ta geo bestek gaztegek. Baiño kanpoti launtzea jutun zitzaion, hola, ardie hiltzen zuenen ta mondejuk partittu ta eitteko jendei. Bai, hola, hor´e. Bizimodue... Ba! Gaztetakoa, bakizu.

2. Baserriko lanak: lurreta, garia, artoa, babarrun-biltzea...

- **Erref:** BEA-016/005
- **Iraupena:** 0:02:30. **Hasi:** 00:05:40. **Bukatu:** 00:08:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

Umetako, gaztetako kontuak. Baserriko lanak: sorobarrena, lurreta. Sorook landu egiten ziren: garia, artoa... Babarrun-biltzea.

Transkripzioa

- Eta garai baten zu... gaztetan...
- Bai, hemen dana irikin ta...
- ... auzoko giroa ta... baserri guztietako umeak elkarrekin ibiltzen ziñeten edo...?
- Bai, bai. Ta gu... ni gaztetan hasitakoa naiz lanen. Ta sorook... dana soro ibiltzen zan ordun: garie, artoa... dana ibiltzen zan. Ta geo eitten zan soro-

barrena, beti lurre eroitzen zan barrena ta lurketea esaten zitzaion. Saskika, auzokoi danai deittu ta aldiko bakoitzeti bat juten zan ta bizkarren lurre kargatzen zuen batzuk sestoa ta kanbiatuz, bata bestei emanez. Ta ni, ba... ordun ´e soroa jun ein behar, ba, ta aittek esan zin: "Ni jungo naiz nekau eingo zea zu ta" ta "Ez, ez. Ni oain jun behar det". Bizkarren kriston babea ataa zitzaten saskikin, ta deseaten jun zitzaten garaien. Geo gazta ta ogie eo ematen zoen atsalde-erdi inguruan, usuarioa hala izaten zan ta. Ta aitte jun zitzaten garaien, enee, esan ´e in non: "Ni ez nauk berriz jungo hola [boluntadekin] lurketaa". Lurketak eitten zien; baten "Bueno, gaur holako lekutan lurketea emen dao. Bihar beste leku baten...". Ta artosartzek eta hola ´re bai, e? Artoa-ta eskuz sartzen zan orduun, ta "Bueno, gaur holakok banetuta jarrita emen dauke lurre ta gaur han artoa sartu behar da" ta danak alkarri launtzen. Eskuz sartzen zana, bakizu, urrie geatzen zan. Ta holaxe batea ta bestea. Bueno...!

- Alaba: Geo [...] gari-jotzek, garie...

- Garie ´re bai.

- Alaba: Hemen ni gariikin akordatzen naiz.

- Bai.

- Alaba: Makinea...

- Garie ebaitzen aurrena ittaiekin ebaitzen zan. Ta guk hemen, ba, hamalaun bat lagun edo bai, baiño dana etxeko parientetakok etortzen zien. Ta beheti etortzen zienak Seferina ta Kandido ta...

- Alaba: Esnezalek.

- Esne... Bai.

- Alaba: Baiño launtzea etortzen zien.

- Laun...

- Alaba: Alabesak o etorri sobra ´re garai baten ta eak ´e geo eaman [eitten] zuen jana eantzako haik ´e... ta, ordun, etorri launtzea ta gero jeneroa eaman eak. [...] Ohitturea...

- Bai. Ta babarrun-biltzea ta askotan etortzen zitzaten nei hua, emakuma hua.

3. Gariaren lanen inguruko azalpenak

- **Erref:** BEA-016/007
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:08:30. **Bukatu:** 00:10:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

<p>Gari-ebakitzea auzolanean egiten zuten. Otorduak prestatzen izaten zuen Jesusak lana. Gari-jotzea egiteko eguzki beroa behar izaten zen. Gariak duen lanaren inguruko azalpenak. Garia metatu egiten zen; "gari-balak" egiten ziren. Gari-jotzeko makina 3-4 baserritarren artean erosi zuten. Jende asko behar izaten zen garia jotzeko.</p>

Transkripzioa

- Atsalden, urdaiazpikokin... Urten behin hiltzen gendun txerrie ta beti gordetzen zan eozein lan ein behar bagendun, urdaiazpikok eta hoik gorde eitten zien, salmueran eo zea, ondo. Ta, geo, tomatekin jartzen zendun urdaiazpiko hua ta eamaten zendun me(r)iendatzeko garaien. Ta, bueno, ze pillea bueltan holaxe jarrita. Ta nik otordue prepaatzen izaten non lana:

aurrena atsaldeko meriendea ta geo gaueko afarie. Ni ez nitzen juten kanpoa, baiño sukalden izaten non nik lana hainbeste lagunei emateko. Baiño ondo moldatzen zan, e? Ta, geo... Hoi ebaitzeko garaien, ta jotzeko, berriz, behar izaten zan euzki beroa. Metauta eukitzen zien garik. Hola, esku tamaiña hontako bat lotu ta jartzen gendun aurrena. Ta geo hua eitten zan metau. Ta geo garie jo behar zan garaien zabaldu eitten zien zea haik, bala esaten giñon guk, gari-bala. Ta hua zabaldua jartzen zan euzkitan ta geo batzuk gurdikin ekartzen hua. Geo, zea, makinea gendun, trilladorea. Hiru launen arten sozio zuen, eta gue gizona bea aitzen zan zeatzen, eta arreba, Mari Joxepa, hari ematen. Ta beste batzuk hauntza barrua sartzen ta jende asko behar izaten zan. Geo, harek jotzen zon lastoa ganbaraa jaso behar izaten zan. Han ´e laun pare bat behar izaten zoen! Jende asko, baiño lana asko ein behar izaten zan, e? Ta hautse ´re bai, e? Gariik zikiñe do.

4. Lurreta auzolanean egiten zen urtean behin

- **Erref:** BEA-016/008
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:10:20. **Bukatu:** 00:12:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Lurretaren inguruko azalpenak. Auzolanean egiten zen hau ere; txandatan jaso behar izaten zen lurra otarretan, bizkar gainean. Urtean behin egin beharreko lana zen. Laian egindakoa da bera; gerora etorri zen goldea. Lurretaren inguruko azalpenak. Udaberrian egiten zen "lurketa".

Transkripzioa

- Lehen aipatu duzu lurketa eta zer izaten zen orduan, zestokadak?
- Bai, zesto txikik, otarrak esaten die batzuk, "lur-saskik" esaten giñon guk. Lur-saskik esaten diou. Saski txiki bat. Ta hua, ba, betetzen zoen ta batzutan tontorra o igual jartzen zoen ta harek karga haundie. Ta batek bizkarren damakizuna zuk hari hartu ta txandatuun, lau o bost laun igual. Zuk...
- Alaba: goora eman behar...
- Bai, goora. Konpaztea, barrenekok jasotzen do bizkarrea ta hurrungoa zureana etortzen zanai zuk bizkarra jarri ta harek hartu ta harek ematen zizun hutse zuk behera eamaten zendun. Bakoitzek txandan. Ta goora ´re igual, bizkarren, txandatuz.
- Alaba: Ta ordun laian indakoa izango zan, goldaik eta ez zan izango arten.
- Laian-ta, bai. Goldan ´e...
- Alaba: Orduako bai?
- Baiño gerotxon goldan. Laian gehiena.
- Dena dela, lurketa bizkarrean, orduan, lur-otzarak edo eramaten zenituzten, eta hau noiz izaten zen urtean... noiz? Behin edo...?
- Urteen behin.
- Urtean behin...
- Klaro! Soro hua urteen behin banetzen zendun ta beti lurre behera juten zan. Ta muiño-eskiñan... bestela behera erabat kargauko zan, ta eitten zoen, ba, metro erdi bat o metron bat zeatu, barreneti kendu. Ta hua jasotzen zan gora. Ta guenea eaman ber zendun hua.

- Ta hori uda parten egiten zen lan hori?
 - Bai, bai, hoi...
 - Alaba: hori udaberria igual...
 - Uda... e, udaber... udako garaie izango zan, e? Hoi arto eittekon eo hola. Arto eittekon.
 - Alaba: Ta artoa noiz itten da, udazkenen edo udaberrin?
 - Ez, ez, udaberriin, udaberriin. Artoa? Bai.
 - Alaba: Artoa ta babarruna. Bai, udaberrin, bai.
 - Hoixe, San Joanak baiño aurreti, bai. Udaberriin.
 - Alaba: Ba, ordun ein beharko zuen gora jaso.
 - Klaro. Banetzen eta lurre jartzen zendun garaien, geo hua jaso eitten zendun gora.

5. Basoak gaur baino garbiagoak

- **Erref:** BEA-016/009
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:12:15. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Mugak asko zaintzen ziren. Baserritarren arteko harra-marrak. Basoak oso zainduta egoten ziren; garbi-garbiak. Orbela biltzeko "zarbea" erabiltzen zuen.

Transkripzioa

- Alaba: Eske ordun diskusiok´e hola belar pixkat bizilaunek...
 - Mugan.
 - Alaba: ... mugak mozten baldin bazon, hasarrau ta dana eitten zien baserritarrak.
 - Bai. Hemen...
 - Alaba: Hua zan...
 - Asko zaintzen ziren?
 - Alaba: ... pekatue zan balarra kentzea batek bestei.
 - Hemen guk, zea... jakiñe, nausi batena zan hau. Da. Zea gendun... Nola zon izena honek?
 - Alaba: El Duque del Infantado, esan diot.
 - Bai. Eta, jakiñe, horrena bezela gurea. Baiño ter(re)nok partittuta zeren, nun mugak. Eta hemen beheran murkoa, zeak, hemengo amonak, ittaiekin ebaita ekartzen emen zon belarra muiñokoa. Ta hemengo aittonak hoiña zala muiñoa ta muiñoa izaten da goiko ter(re)nok daukenana izaten da behera jo arte, murkoa seiñale zon. Ta horrekin hasarrau. Ta hor goien mendin, berriz´e, segan eitten zoena zuzenen eman behar, e? Zea, mugea. Diskusiok zertako, danak bertan utzita jun behar ta.
 - Alaba: Oain dana laharra. Oain dana laharra ta belarra.
 - Dana, bueno...
 - Alaba: Baiño ordun zan belarra ta hola...
 - Bai, asko zaindu behar zan. Bakoitzak...
 - Alaba: Bakoitzek bere terrenok.
 - Bason orbela´re... Orbela´re ekartzen gendun, gaztiña-hostoa ta eroitzen zanen ta, hango belarrakin batera ebai ta ekartzen zan. Ta saski bat bakarrik´e ez zan uzten bason! Dana aitzeneko hondarra´re bilduta ekarri behar etxera orbela! Oain han geatzen die danak, orbelak eta gaiñetikook.

- Alaba: Erratzakin´e bai, ez? [Eskoarekin partez]...
- Erretza? Hoixe!
- Alaba: Erretza´re bai pasau.
- Bueno...! Majiña bat aldiz...
- Alaba: Garbi-garbi gelditzen zan basoa.
- Majiña bat aldiz ein non nik juten nitzenen eskoarekin baiño hobeto bitzen zala ta. Baztarren eoten zien zeak izaten zien... elorriik.
- Alaba: Elorri, bai.
- Ta harekin ein hola eskuun kendu eskue ibilli behar zan lekukoa ta sokekin lotu ta zarbea orbelak bitzeko. Ez zan hua bezalakoik. Harek bitzen zon ondo! Ta holakook einda nao ni majiña bat, e?

6. "Matxardea"rekin biltzen zituzten gaztainak

- **Erref:** BEA-016/010
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:15:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaztaina-biltzea asko gustatzen zitzaion. Morkotxarekin batzen zituzten gaztainak. Gaztainak biltzeko, "matxardea" erabiltzen zuten. Toponimia. Danbolinean erretzen zituzten gaztainak.

Transkripzioa

- Ta gaztiñak bildu?
- Gaztiñak bitzen... ai ene! Nei ikaraarri gustatzen zitzaten ta gaztiña-ale batzuk izaten z...
- Alaba: [... makurtuta], e? Morkotsa zabaldu ta... Atzaparrak eta hala eukiko zittuen geo.
- Baiña zerbait erabiliko zenuten gaztaiñak biltzeko, ez?
- Bai, zea, matxardea esaten giñon, hola, ixten zan bat izaten zan.
- Alaba: Egurrezkoa...
- Egurrezkoa. Ta batzuk lehenao [indakok]´e izaten zien, baiño nik bason igual itten nittun. Zarbea, hola, bi adarrekoa ikusten banon, moztu beheragoti, puntea´re mozten nion ta morkotsa zeatzen nin ta nik basoon igual eitten nittun. Hainbeste gaztiña bildu non...! Ta etxekook bakarrik ez...
- Alaba: Ta bere amanak [...].
- Hemen Zelar... bai, honea etorri zeaten baiño lehenao hor baso bat zoen. Ze gaztiña-alea izaten zan...! Eta hogeita bost bat kilo inguruko zaku txiki bat. Orduun, zeak, anaiek-eta ekarrita han fabrikatik etarrita o honea. Eman zin ta zaku batzuk polittagok zien... Ba, hua puntaiño betetzen non gaztiñekin, ba, hogeita bost bat kilo bai. Ta Egileor aldeti, banekin gaztiña nun zeon hobena, ta han bildu ta etortzen nitzen honea, zeatik, lehen ama zana zan hola aitzen zana gaztiña biltzen. Ta geo hua... utzi zion, hil ein zan hua´re ta geo ni hasi nitzen. Zelarkok eak ez zoela eak bilduko gaztiñaik eta, bueno, nik biltzeko.

7. Gaztaina-klaseak

- **Erref:** BEA-016/011
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:15:50. **Bukatu:** 00:17:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Gaztaina klaseak: "Otañue"; "Bettargie"; "Txertekea"... Bakoitzaren ezaugarriak.

Transkripzioa

- Danboliñen ordun erretzen gendun gaztiñea. Ta onak gaztiñak, e! Oain haik akordauta eon beharko deu.

- Lehen aipatu duzu gaztaiñarik onenak eta...

- Ke ba! Ez dao oain gaztiñaik.

- Baiña orduan...

- A! Orduun saltzea íre bai!

- ... gaztaiña-klaseak egoten ziren gaztaiña-klase diferenteak?

- Alaba: gaztiña-klaseek...

- Otañue.

- Alaba: Otañue izena?

- Bai, [...]. Bettargie, hua goizagokoa zan, bettargie. Ta otañue zan atzenekoa. Ta geo txertakea —txertakea esaten giñon—, bate txertau beko gaztiñak. Haik íe gaztiña ona izaten zoen.

- Ta onena zein izaten zen?

- Ba, haundie otañue; oain, bettargie zan goxogoa. Otañue zan ikaragarritzko gaztiña-alea. Gustoa ematen zon harek biltzea! Bueno...!

- Orduan, gaztaiñak...

- Ta hutskerin, e?

- Alaba: Ta plazaa gero saltzea.

- Saltzea...

- Plazan saltzera, e?

- Bai, oain... geo hor Zelarretik ta ekartzen non orduun ez gendun...

- Alaba: Ez, lehenaokok hemen hartzen [...].

- Lehenao bai, lehenao saltzen gendun, baiño gero kitto. Geo ez gendun gaztiñaik saltzen. Geo dana jartzen nittun ganbaran eo nun o han pillan jartzen nittun ta beti gaztiñea erreta etxen jan. Hemen anaiek-eta geo honea etortzen zien afaltzea; majiña bat afari ein zoen.

8. Ogia egitearen inguruko kontuak

- **Erref:** BEA-016/013
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:18:55. **Bukatu:** 00:20:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

Laburpena:

Baserriko ogia. Batzuk "orantza" edo "legamie" gordetzeko ohitura izaten zuten, hurrengo astean berriz ere ogia egiteko.

Transkripzioa

- Eta ogia egiteko orduan, masa, esan duzu, batetik bestera, aste batetik bestera, gordetzen zenuten masa zati bat...
- Bai, bai, aste guziin.
- Alaba: Baiña ez zendun gordetzen masa, ore-masea.
- A! Ez. Orantza o... nola do...? Legamie batzuk esaten dioe, beste batzuk orantza. Ta ogi-masea o zea, baiño [Loitzeneko] amona horrek...
- Alaba: Gorde eitten zon, ez?
- ... puskea kendu ein zoon masei ta hurrungo asteako hua gordetzen zoon. Horrena diferente, baiño ez zan gurea bezelako ogie etaatzen, ittoagoa.
- Ta ittoagoa zer da?
- Zer da? Ba, pisugoa. Gurea harrogoa.
- Alaba: tupittuta bezala.
- Tupittue harena. Oain, jateko ez dakit nik zenbateaiño zea izango zon, hua bee eraa ibiltzen zan ta. Baiño guk ez, guk ekartzen gendun le(g)amie o esan dizuan hoi. Ta gue anaiek, gaiña, osoik botatzen zien, biri osoa.
- Alaba: dana, paketea.
- Pakete hoi, bati erdie ta bestei erdie. Ta ogie ondo harrotzen zan. Ta geo aste guztie... Hue gizajo hutse zan. Ogie danai eman behar izaten zien. Itten zon ogie kilo t´erdi, pisatzen gendun geo masea labeen sartzeko, ta kilo t´erdiko zeakin. Izaten zittun batei eman beharrekok, bestei eman beharrekok...

9. Eguberrietan opilak kantari zebiltzan umeentzat

- **Erref:** BEA-016/014
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:20:20. **Bukatu:** 00:20:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Santo Tomas
- Erljioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Santo Tomas egunean txorizoa sartzen zuten opilean. Eguberrietan baserriz baserri kantari ibiltzen ziren umei ere opilak ematen zizkien anaiak.</p>

10. Etxe-jabeari jeneroa entregatu behar

- **Erref:** BEA-016/018
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:24:50. **Bukatu:** 00:28:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean

Laburpena:

Baserría "Duque del Infantado"-ren jabetzakoa zen. Inguruko baserriak. Beasainmendi. Basarte baserriak Markesarenak ziren. Etxe-jabeari eman behar zitzaion errenta (kapoiak...). Gerra ostean garia udaletxera entregatu beharra. Lazkaoko errota. Gerra osteko urteetan gosea.

11. Gerra-osteko egoera gogorra

- **Erref:** BEA-016/019
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:28:25. **Bukatu:** 00:30:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Gerratik itzulera

Laburpena:

Gerra osteko egoera oso gogorra izan zen. Kaletarrak, dirua bai baina janik ez. Soroan lan asko egiten zen.

12. Ura nola ekarri zuten etxeetara

- **Erref:** BEA-016/020
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:30:20. **Bukatu:** 00:33:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Jaiotetxea nolakoa zen. 20 urterekin ezkondu eta gizonaren baserrira joan zen bizi izatera. Argindarra; ur-korrontea. Iturburua 7 baserriren artean. Udazkenean beste iturburu batetik ekarri behar izaten zuten ura. Ura nola ekarri zuten etxeetara. Abere asko izaten zituzten baserrietan eta ur asko behar izaten zen.

13. Abereei hostoak ematen zitzaizkien jateko, belarrik ezean

- **Erref:** BEA-016/021
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:33:25. **Bukatu:** 00:34:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Abereei ze ematen zitzaizen jateko belarrik ez zegoenean. Lizarra; haritza. Adarrak kimatu eta hostoak ematen zitzaizkien. Arbia negurako.

14. Zelarre baserriaren egitura; baserri-izenak

- **Erref:** BEA-016/022
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:34:55. **Bukatu:** 00:38:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Garia
- Baserría » Baserriko lanak » Artoa

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura
- Baserría » Baserríko lanak » Sagardogintza

Laburpena:

<p>Zelarre baserriaren egitura. Logelak; ganbarak. Artoa jotzeko makina; "astoa". Dolarean sagardoa egiten zuten. Aita gari-garbitzeko makinarekin ibiltzen zen baserri batetik bestera. Baserri-izenak.</p>

15. Sagardoa egiteko prozesua; sagar klaseak

- **Erref:** BEA-016/023
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:38:50. **Bukatu:** 00:40:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Sagardogintza
- Baserría » Baserríko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagardoa nola egiten zuten; prozesua. Sagar klase desberdinak: "frantsez txikie"; "errezile"; "moko-gorrie"; "urtebie"; etab.</p>

16. Sagardoaren inguruko azalpenak

- **Erref:** BEA-016/024
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:40:50. **Bukatu:** 00:42:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Sagardogintza
- Baserría » Baserríko lanak » Sagarra, sagastiak

Laburpena:

<p>Sagardoaren inguruko azalpenak. Sagastiak ihartu egin ziren eta egun ez dute sagardorik egiten.</p>

17. Gariaren inguruko lanen azalpena

- **Erref:** BEA-016/025
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:42:10. **Bukatu:** 00:45:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserríko lanak » Garia

Laburpena:

Garia noiz ereiten zen. Gariaren inguruko lanen azalpena. Igitaia; sega. Metatu.

18. Orbela, ganaduaren azpiak egiteko

- **Erref:** BEA-016/027
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:46:00. **Bukatu:** 00:48:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Baserría » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Orbela batzen zuten basoan. Ganaduaren azpiak egiteko erabiltzen zuten orbela.

19. Eskolan zer ikasten zuten; umetako gaiztakeriak

- **Erref:** BEA-016/028
- **Iraupena:** 0:05:05. **Hasi:** 00:48:15. **Bukatu:** 00:53:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Eskolako kontuak. Moja frantsesak, karmelidak... 10 urtera arte egon zen eskolan, jaunartzea egin arte. Eskolan zer ikasten zuten. Jolasak. Umetako okerkeriak. Janztetxea; serora-etxean baserritarrek oinetakoak aldatzen zituzten. Usurbeko baserría.

20. Eskolan klaseak gaztelaniaz

- **Erref:** BEA-016/030
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:54:45. **Bukatu:** 00:55:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Eskolan klaseak erdaraz izaten ziren. Erdaraz zerbait bazekiten ordurako, herrian esne-saltzen ibiltzen zirelako beharbada.

Transkripzioa

- Eta eskolan, ez dakit, klaseak eta erderaz izango ziren...
- Bai. Euskeaz ez zan eitten orduun, e?
- Eta ondo moldatzen ziñeten edo...?
- Erdeaz. Bai. Hemengo zeak esaten zoon, gaztenak, [Batisek], dana euskeaz, erdeaz tutik ez jakin, ta hari txarrena gertau zitzaiona erdeaz entenditzen ez ta eskolaa jun. Ta ze esaten zioen ez zekiñen. Harek beti hua esaten do. Nik ez dakit... guk ez dakit hoinbesteaiñoko... Nik ez det uste hoinbeste diferentzi izan gendunik. O esne-partitzen ibiltzen giñela o kaleko jendekin gehio zeatu giñelako o... Zeatik esne-partitzea ´re juten giñen gu behera, kalea, astokin gerrako garaien.

21. Gerra garaiko bizipenak

- **Erref:** BEA-016/031

- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:55:35. **Bukatu:** 00:56:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerrako kontuak. Tiroak; soldaduak. Ataun inguruan tiroketak.

Transkripzioa

- Zeatik esne-partitza ´re juten giñen gu behera, kalea, astookin gerrako garaien. Beheran esneek partittu ta gora getozela a hor goiti [Ametzarrati] tiroteok ekin ta zulon barrenetik atzera behera jetsi, Miel Antonenen — ikuillue zeuken ordun Miel Antonek. Zuk ez dakizu...

- Alaba: [...]

- Bai, Inixio Altuna ta bizitako hortan ikuillue zan. Eta han astook utzi Klara ta biok ta Altunea jun giñen. Ta Altunen ´e, zea aldeti, Ataun aldetik soldaduk eo ez dakit ze zea... Bueno! Ibili gendun...! Ta aber itxen nola eongo zien, gu agiri ez. Ta [Ametzarratik] hasi zien garaien tiroka... bueno! Atzera jirau ta astok hartu ta goitik behera. Esne partitzen ibiltzen giñen gu gazteik eta nik erderazkokin ez dakit hoinbesteaiñoko...

22. Dotrina euskaraz; pazkoakoa egiteko txartela

- **Erref:** BEA-016/032
- **Iraupena:** 0:01:15. **Hasi:** 00:56:25. **Bukatu:** 00:57:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Euskaraz ikasi zuten dotrina. Orduan ikasitako zenbait pasarte. Pazkoakoa egiteko txartela behar zen.

23. Eskolan buruz ikasitakoak oraindik gogoan

- **Erref:** BEA-016/033
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:57:40. **Bukatu:** 00:58:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Eskolan buruz ikasitako gauza asko oraindik ere gogoratu egiten ditu.

24. Lehenagoko abestiak

- **Erref:** BEA-016/034
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:58:30. **Bukatu:** 00:59:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa
- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

<p>Lehenagoko abestiak. Kanturako zaletasuna.</p>

25. Eskolako uniformeak; mojak nolakoak ziren

- **Erref:** BEA-016/036
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:00:50. **Bukatu:** 01:01:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Eskolako uniformeak. Karmelitak; frantsesak... Mojak nolakoak ziren.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com